



10 ideia #AgendaJuventud talderako 2019ko Europako hauteskundeetan

1. Pertsona gazteek garapen iraunkor baterako kezka dute

Etorkizuna dago jokoan, izan ere, gure belaunaldiak eta gure seme-alabenak ondorio gehiago nabarituko dituzte gaur hartzen diren erabaki politikoen eraginez, bereziki klima-aldaketarekin lotutako ekintzen inguruko erabakien eraginez. Politika arduratsuak eta politika iraunkorrak babesten ditugu.

Ba al zenekien? Pertsona gazteen (18-35 bitartean) % 48.8k uste duenez klima-aldaketa eta naturaren suntsiketa direla arazo orokor larriena (Global Shapers Survey 2017).

→ 1. ideia: Pertsonen ongizateari, etorkizuneko belaunaldiei eta planetari lehentasuna ematea erabaki eta politika guztietan.

Garapen Iraunkorrerako Agenda 2030 eta Pariseko Akordioa osorik txertatzea EB barneko lehentasun gisa. Horretarako, erreferentziazko adierazleak hartu behar dira aurrerapena neurtzeko, Barne Produktu Gordina (PBG) eta hazkunde ekonomikoa neurtzeaz gain, horien ikuspegi ekologikoa barnerratzekoak.

2. Pertsona gazteek oraindik ezin dute lan kualifikaturik lortu Europan

Pertsona gazteok oraindik lana aurkitzeko borroka egiten dugu. Lan egiten dugunean, soldata apalei, epe laburreko edo lanaldi partzialeko lanpostuei, behartutako auto-enpleguari edo ordaindu gabeko bekei aurre egin behar diegu. Lan ez estandarra –esate baterako aldi baterako lanaren formulak- ere areagotzen ari diren pertsona gazteen artean, baina pertsona gazteen lanpostuetara eta sortzen diren enplegu berrietara bideratutako babesak oraindik eskasa da erabat.

Ba al zenekien? Pertsona gazteen % 44 aldi baterako lan moduetan daude harrapatuta, adin-multzoko guztiak aintzatetsiz tasa handiena da hori. (Eurostat 2017).

→ 2. ideia: Pertsona gazteek kalitatezko eta segurtasunarekin egindako lanetarako eskubidea izan dezatela bermatzea.

Eskolatik lanera kalitatezko trantsizioa ziurtatzeko babes-neurriak. Gazteen Berme programan eta haren eraginkortasunaren hobekuntzan inbertsio sendoa egitea, pertsona gazteei etorkizun bat eskaintzeko, zehazki egoera ahulenean direnei. Horretarako, enplegu modu guztietarako laneko gutxieneko baldintza batzuk ezarri beharko lirake, sortzen ari diren laneko errealitate berriak, enplegu modu berriak, barne, lanaren izaera aldakorrek kontuan izanik.

3. European pertsona gazteak dira txirotasuna eta gizarte-bazterkeria pairatzeko arrisku gehien dutenak

Gero eta gehiago dira etxerik gabeko eta etxebizitzari dagokionez baldintza eskasetan dauden gazteak. Horrela pertsona gazteak dira Europako herrialde gehienetan etxerik gabeko pertsona guztien % 20-30. Belaunaldietan erreparatzen badugu, diru-sarreretan dagoen desberdintasunak gora egin du; ekonomia murgilduan burututako lanaren eta giza babeserako sarbidean dauden hesien ondorioz, lan txiroak gero eta gehiago dira gazteen artean. Kalitatezko enplegura eta giza babesera iristeko hesien ondorioz, gainera, populazio gazteena aurrezteko edo beren pentsioetara eta ongizate-sistemetara ekarpenak egiteko aukerarik gabe geratzen da, era berean, instituzioetatik abiatzen diren laguntza moduetara ere ezin dira iritsi.

Ba al zenekien? Europako gazteen laurdena gizarte-bazterkeria arriskuan dago (16-29 urte bitarteko gazteen % 28,8, Eurostat 2016).

→ 3. ideia: Pertsona gazteen giza eskubideak eta giza babeserako sarbidea babestea.

Gazte bakoitzak etxebizitza baterako sarbide egoki eta kalitatezkoa izan dezala ziurtatu behar da, bizitza-baldintza gutxieneko batzuetarako eta Estatuak emandako ongizaterako sarbidea izan dezala.

4. Pertsona gazteak dira teknologia berrien erabiltzaile nagusiak. Horren ondorioz, lineako desinformazioa areagotzearekin lotutako arriskuen eraginpean daude.

Gizarte-sareak, besteak beste, helburu politikoetarako, albisteak irakurtzeko eta antzeko ideiak dituzten pertsonekin harremanak finkatzeko erabiltzen ditugu, eta baita baterako kausa baten inguruan mobilizatutako komunitateak eraikitze ere. Haatik, pertsona gazteak dira, era berean, kanpaina politikoen bidez lineako publizitate hautaturako ematen den aldaketarekin lotutako arriskuen aurrean talde zaugarrienetako bat, eta gainera hazkunde azkarreko sektore honetan egiazko erregulaziorik ez dago.

Ba al zenekien? 18-24 urte bitarteko pertsonen herenak (% 33) dioenez, gizarte-sareak dira beren albisteen iturri nagusiak, beste adin-multzo batzuetan baino portzentaje askoz ere handiagoa (Reuters Institute 2017). Europarren % 83ak usten duenez Fake News izenekoak arazo dira Demokraziari begira orokorrean (Europako Batzordea 2018).

→ 4. ideia: Populazio gazteari teknologia digital berria konfiguratzeko duen politikan parte harraraztea.

Pertsona gazteak politikaren eraketan barneratu eta garapen teknologikoaren inpaktuaren inguruko ikerketa eta ebaluazioak lehenesten dituzten pertsona gazteen bizitzan eta etorkizunean. Gazteen ahotsa entzutea Interneten funtzionamenduan edo hura erabiltzen den moduan eragina izan lezakeen legeria bat ebaluatzeko. Kritikaren irakaskuntzak sustatzea nahiz gizarte-sareetako bitarteko eta edukiekin lotutako pentsamenduzko trebetasunak, esate baterako albiste faltsuen eta albiste zaborren inguruan.

5. Pertsona gazteak ikuspegi irekiagoa dute migratzaileen aurrean eta beste adin-multzo batzuk baino inklusiboagoak dira

Hedabideetan, lineako hedabideak eta gizarte-sareak barne, politizazioa eta diskurtso populista handia bada ere, non gehiegizko maiztasunez desinformazioa, mitoak eta alarmismoa diren oinarri, gertagarriago da pertsona gazteak jazoerak eta frogak oinarritzat hartzea migratzaileen ekarpen positiboari eta gizartearen aniztasunari dagokionez.

Ba al zenekien? Pertsona gazteen % 40ak esaten duenez migratzaileen eta errefuxiatuen gizarteratearen kudeaketa lehentasunezko kontua izan beharko litzateke Europar Batasunean, segurtasun eta defentsaren inguruan gauza bera dioen herenarekin (% 35) alderatuz. (Flash Eurobarometroa 455, 2017).

→ 5. ideia: Giza erantzun bat, migrazioaren eskubideetan oinarritzen dena, txertatu eta gizarte ireki eta aniztetan bizitzearen onuren inguruko ikuspegi bat sustatzea.

Migratzaileak eta errefuxiatuak ongietorriak direla, gizarteratuak, sentitzea ziurtatzeko politikak hartzea, eta Europako gizarteetan egiten duten ekarpena dela medio estimatuak senti daitezela. Europako diskurtso politikoetan ematen den narratiba arrazista, misogino, xenofobo eta homofoboaren goraldia eteteko ekitea.

6. Pertsona gazteen interesen aurrean entzungor egiten dute politikariek

Beste gizarte-talde batzuen alde egiteko joera dute. Horren ondorioz, Europako gazteek gure eskubideetara (esate baterako, partaidetzarako, lan duinerako, hezkuntzarako edo diskriminatuak ez izateko eskubideak) iristeko aurre egin beharreko gero eta erronka handiagoak jorratzen ez dituzten politikak sortzen dira.

Ba al zenekien? Pertsona gazteen kezka eta interesak jorratzeari dagokionez alderdi politikoek eta politikariek erakusten duten borondaterik eza eta ezintasuna, modu ez sinboliko batean, hauteskundeetan parte-hartzeari so gehien aipatzen den hesietako bat da ("Gazteak eta bizitza demokratikoa Europan", Gazteriaren Europako Foroa, 2015)

→ 6. ideia: Hauteskondeez gain, beste aukera batzuk ematea pertsona gazteen interesak entzunak izan daitezzen Europako politikak eratzean.

Gazteekin egiteko elkarrikeria eta gazte erakundeetako ordezkariak politikak eratzeari begira egindako ekarpenak lehenestea gazteak eta aparte utzitako beste zenbait talde politikatik kanpo uztearen ondorioz sortutako desoreka zuzentzeko neurri gisa.

7. European pertsona gazteak ukatu egiten dituzte “ohiko politikek”

Pertsona gazteek gero eta gutxiago parte hartzen dute hauteskundeetan, bereziki Europako hauteskundeetan. Mugimendu politiko berriak aukeratzen ari gara gehien finkatuta dauden alderdi politikoen inguruan. Horren ondorioz gurekiko begirunea oso apala da gakoak diren erakunde politikoetan.

Ba al zenekien? 18-24 urte bitarteko gazteen % 28ak soilik eman zuen botoa 2014ko Europako hauteskundeetan, eta Europako Parlamentuaren hautatutako kideen artean soilik % 2k zuen 30 urte baino gutxiago (Gazteen Europako Foroa, 2015)

→ 7. ideia: Pertsona gazteei botoa ahalbidetzea hauteskundeetan hautagai modura koka daitezela. Bozkatzeko adina 16 urtera murriztea babestea, eskoletan osoko hezkuntza, politiko, ekonomiko eta gizartekoia sustatzearekin uztartuta.

Alderdi politikei dei egitea beren egituretan gazteak susta ditzaten eta hautagai gaztak aurkez ditzaten. Finantzaketan eta kanpaina politikoen gastuan gardentasuna ziurtatzeko legeak egitea. Europako hauteskunde legeak nahiz nazionalak eraberritzea boto bakoitza aintzatetsi dadin bermatzeko, eta eserlekuak jasotako botoekin bat etor daitezen.

8. Pertsona gazteek gizarte eta politikako bizimoduaren inguruko kezka dute eta zeresan asko dute

Kausari begira gaude gehiago, eta alde nabaria izan gaitezkeela uste dugunean inplikatu egiten gara. Boluntario gara gazte erakundeetan, esate baterako, gizarte desberdintzari eta ingurumen arloko bidegabekeriari aurre egiteko. Pertsona gazteak desengainatuta sentitzen dira politikariek eta gurekiko konpromisorik hartzen ez duten sistema politikoekin, eta giza garapenaren ekarpenerako esperientzia horiek aitortzen ez dituzten hezkuntza sistemekin.

Ba al zenekien? Harreman positibo argia dago boluntarioek eta gazteek gizarte zibileko erakundeetako jardueretan duten parte-hartzea erakusten duten datuen eta gizarte aurrerapenarekin lotutako datuen artean. Horrek gizarteari so gazteen artean herritartasun aktiboa sustatu eta babesteak dituen onura orokorrak agerian uzten du. (Gazte aurrerapenaren indizea 2017)

→ 8. ideia: Hezkuntza sistemetan erreformak babestu eta sustatzea pertsona gazteok herritar aktibo bilakatzen lagundu eta gizartearen aurrerapenean ekarpenak egin ditzagula ziurtatzeko.

Hezkuntza formalean tituluak aitortzean, enplegarritasunari ez ezik, guztiontzako kalitatezko herritartasunerako hezkuntza eskaintzeari begiratzea, pertsona gazteek pentsamendu kritikoa garatu eta alfabetizazio politiko eta mediatikoa hobez dezaten. Hezkuntza sistemetan erreformak babestu eta hauspotzea boluntariora, aktibismoa eta gazte erakundek eskainitako hezkuntza ez formaleko esperientziak aitortuak izan daitezen hezkuntzari eta gizarteari so duten balioa dela medio. Lanak, boluntariora eta hezkuntza ez formalek pertsona gazteen bizimoduan eta, modu zabalagoan, gizartean egiten duten ekarpena gehiago aitortu dadin babestea

9. Pertsona gazteak politika eta erabaki politikoen eragindun dira, ez soilik orokorki "gazte politika" modura ulertzen diren haien ondorioz

Gure eguneroko bizimoduan ingurumenaren kalitateak, sekzio arteko desberdintza eta diskriminazio modu ezberdinek, austeritatearen politiken inpaktuak edota osasun-laguntzarako sarbideak eragina dute, bizitza eta gizarteko beste alderdi batzuen artean. Erronka gehienei aukera modura egiten diegu aurre. Bizi garen gizarte eta komunitateei forma eman behar diegu eta haietan erabat txertatuta egon behar gara.

→ 9. ideia: Gazteen eskubideak eta gazteekin izandako elkarrizketa esparru politiko guztietan lehentasuna izan daitezela lortzea.

Pertsona gazteen eskubideak betetzea haiengan eragina duten politika guztien erdigunean egon beharko luke. Gazteek ahotsa izan beharko luketen beren eguneroko bizimoduan eta bizi garen gizartearen etorkizunean eragina duten erabaki eta politika guztietan, ez soilik tipikoki gazteekin lotzen direnetan. Betekizuna izan dadila ez soilik gazteei kontsulta egitea, baita gazteekin erabakiak hartzea, politikak eratzeko modu guztietan eskubideetan oinarritutako ikuspegi bat erabiltzea, eta Europar Batasunean etorkizunean egingo diren legegintzako politika eta proposamenen eraketa guztiek, ez soilik tipikoki gazteekin lotzen direnek, gazteen bizimoduan duten inpaktua ebaluatzea.

10. Pertsona gazteak eta haiek ordezkatzeko dituzten erakundeak isilarazi egiten dituzte gobernuek

Gobernuetatik hartzen diren neurriak (esate baterako, lege murriztaileak, funtsen murrizketa eta are jarduera indibidualei egindako mehatxu zuzenak) gazte erakundeek jarduteko eta beren jarduerak gauzatzeko duten gaitasuna mugatzen ari dira.

Ba al zenekien? Europako gazte erakundeen % 42 ez dira erabat aske sentitzen gobernuaren interferentziatik. Gazte erakundeen laurdenak murriztapen desegokiak eta interferentziak izaten ditu beren funtzionamenduan (Gazteen Europako Foroa, 2018)

→ 10. ideia: Europar gizarte zibila eta gazteen espazio gizartekoa babestea. Europako programetan (adibidez, Erasmus+ eta haren ordezkia) gazte erakundeetarako erabilgarri dagoen finantzazioa areagotzea, eta haietako jarduna eta ekiteko gaitasuna murrizteko edozein saiakera eragotzi eta ekiditea.